

ek!

eta kitto!
euskararen elkarrekin

2026ko apirilak 17 · 1392 zenbakia

Argazkilaritza maiztean

ARGAZKIEK KONTATZEN DUTENA



T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizenziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarrai iezaguzu!



Martitzenean, apirilak 14, II. Errepublikaren aldarrikapenaren 95. urteurrena bete zen eta, data gogoratzeko, hainbat ekitaldi egin ziren herrian. Besteak beste, Eibarko Hiria Memoria Demokratikoaren Leku izendatu zuten eta argazkian ikusten dugun plaka jarri zuten udaletxean. Egun horretako argazki eta bideo gehiago gure webgunean eta sare sozialetan ikusi ditzakezue.

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eus



eta kitto!
euskara elkarteak

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,
Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander
Fernandez, Silbia Hernandez,
Irene Jaio, Yanire Sagredo,
Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte eta Naiara
Esnaola

KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA
Irene Jaio

JATORRIZKO DISEINUA
Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri

PUBLIZITATEA
Ander Fernandez

TELEFONOA
943 20 67 76

AZALA
Marian Plaino (Shapes)

BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.800 ale

INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Indarkeria matxistaren aurka

Beste eraiketa matxista bat Euskal Herrian. Oraingoan, Iruñean, emakume bat terrazatik erori da urruntze agindua hautsi zuen gizon batengandik ihesi. Beste behin agerian geratu dira instituzioen babes neurrien mugak, urruntze agindua urratu baitu gizon batek, emakumea babesgabe egoeran utziz.

Azken hamabost egunetan 2 emakume izan dira eraillak eta eraiketa saiakera bat izan da Euskal Herrian. Izan ere, egunero pairatzen dugu indarkeria matxista eta emakume izate hutsagatik eraillak gara. Agerikoa da, gainera, egunero izaten ditugula erasoen berri, titularretan, gure inguruan edo eta gure egunerokoa.

Horregatik, batetik, matxismoa ukatzen duten diskurtso erreakzionarioei aurre egiteko beharra azpimarratu nahi dugu Itaiatik; indarkeria matxista normalizatzen duen testuingurua sortzen duelako eta, hala, emakumeen aurka egiteko erasotzaileen inpunitatea areagotzen duelako. Bestetik, matxismoaren aurkako borrokara batzeko eta erailketen aurka kaleak hartzeko deia zabalitzen dugu: eraso orori aurre eginez, erasotuak izan diren emakumeei beren bizitzekin jarraitzeko kalitatezko bizi baldintzen alde eginez, eta erasotzaileen inpunitatearen aurka borrokatuz. Gero eta jende gehiago indarkeria matxistaren aurka posizionatu dadin, batu borrokara!

Deba Bailarako Itaia

Hortik esanak



Inguru politizatueta egiten direnak elkartasun-ekime-nak dira askotan, hau da, borroka jakinak edo kolektibo zaugarriak babesteko dirua biltzea dute helburu. Horrek justifika dezake, neurri batera arte. Baina, beste askotan lege, ekimenen helburua kultura, politizazioa eta espazio alternatiboen existentzia bultzatzea denean, zelan azal daiteke askori ordaingaitza zaion prezioa ezartzea? Beste logika batean oinarritutako espazioak eskaini nahi ditugu, baina nori zaio eskuragarria eskaintza hori? Eta non uzten du horrek pankartetan aldarrikatzen dugun subertsioa?

(...) Hamaika ertz eta irtenbide argi gutxi dauzkate kontuok, eta diruari buruzko eztabaidak deserosoak dira maiz. Baina horiek mahai-gaineratzea ere badakar logika merkantilistari ihes egiteak. Espazio antikapitalistek ezin baitituzte batzuk kanpoan utzi haien ahalmen ekonomiko dela eta. Bestela, beharbada ez dira hain antikapitalistak ere.

LEIRE VARGAS

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POPA → Ontzietako atzealdea. “Popatik haizia dabela doia itxas zabalian”. Ipurdia, esangura figuratua. “Popiakin jo dau lurra”.

POPALDIA. → Ipurdia. “Astindixozu ondo popaldia, ez deixan berriz okerrik ein”.

POPO. → Ume berbetan, autoa, kotxea. “Kontuz, bazterrera, popoa dator!”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 19
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 20
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 23
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jose Ramon Ugartemendia Ahedo**. 65 urte. 2026-04-10.
- **Iñaki Ezpeleta Idigoras**. 88 urte. 2026-04-14.



Iruñeko hilketa matxista salatzeke elkarretaratzea egin da Eibarren ere

S.H. Euskal Herriko mugimendu feministak egindako deiarekin bat eginez, martitzen arratsaldean elkarretaratzea egin zen Untzaga plazan, Iruñeko Sanduzelai auzoan balkoi batetik behera erorita hildako 37 urteko emakumearen hilketa matxista salatzeke. Mugimendu feministatik adierazi dutenez,

“guk ez dugu inolako zalantzarik, Euskal Herrian 2026an indarkeria matxistak eraildako hirugarren emakumea da”.

Aurten indarkeria matxistak Euskal Herrian hildako hirugarren emakumea da Sanduzelaikoa; azken bi hilketak hamar egunen buruan egin dira.

Antzerkia, bisita gidatuak eta hitzaldia, II. Errepublikaren 95. urteurrena ospatzeko

S.H. Eibarren beste inon baino lehenago Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu zela 95 urte bete dira apirilaren 14an eta, hori ospatzeko Udaletik antolatutako egitarauaren baitan, gaur (barixakua, hilak 17) 22:00etan Untzaga plazan, antzerkia izango da protagonista, Irene Hernando aktore eibartarrak urteurrenarako bereziki sortu duen *Ahotsa(k)* antzezlanaren aurkezpenarekin.

Urteurrenaren harira II. Errepublikaren aldarrikapenari buruzko bisita gidatuak ere antolatu

dituzte, Jesus Gutierrez historia-lariarekin: etzi (apirilak 19) eta apirilaren 26an (domeka) izango dira, 10:00etan gaztelaniaz, eta 12:15ean euskaraz, Untzaga-tik abiatuta. Bisitak doan izango dira, eta izena emateko Udalaren webgunean eskuragarri ipini duten formularioa bete beharko da.

Azkenik, apirilaren 21ean (martitzena), *II. Errepublikaren eragina Euskal Herriko herrietan* izenburuko hitzaldia emango du Patxi Juaristi Larrinagak, euskaraz, 19:00etan Portalean.



Sanjuanetako Gazte Eguneko kamiseta lehiaketa antolatu dute

S.H. Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak sanjuanetako Gazte Eguneko kamiseta lehiaketa jarri du martxan. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek “Jaixak Herrixak Herrixandako” testua edo JHHren logoa erabili beharko dute diseinuan. Kamisetaren diseinuak gehienez 30 zentimetroko zabalera eta 40 zentimetroko luzera izan beharko ditu. Lanak apirilaren 25a baino lehen bidali beharko dira, helbide honetara: jaixakherrixakherrixandako@gmail.com. Ondoren, aukeratutako diseinuak Instagram bidez bozkatzeke aukera izango da.

Errepublikari buruzko bibliografia erakusketa berezia Udal Liburutegian

S.H. Eibarren II. Errepublikaren aldarrikapenaren 95. urteurrena dela eta, Liburutegiak bibliografia erakusketa berezi bat prestatu du. Hautaketak, batez ere, liburuetan jartzen du arreta, eta historia, memoria, pentsamendu politikoa, eskubide sozialak eta kultura uztartzen dituen ibilbidea eraikitzen du. Bibliografiaren indargune nagusietako bat da saiakera historikoa, kronika literarioa, biografia eta eleberri grafikoa biltzen dituela, baita film eta dokumentalak ere.



Arragueta kalea itxita dago eta horrek aldaketak eragin ditu trafikoan

S.H. Arragueta berrurbanizatze obrak direla-eta, astelehenaz geroztik kalea itxita dago ibilgailuentzat eta, beraz, horrek hainbat aldaketa eragin ditu trafikoan: automobilak Bittor Sarasketa eta Matsariatik desbideratu beharko dira (traile-rrak, autobusak eta 8 metro baino gehiagoko luzera duten ibilgailuak izan ezik, horiek Estaziñotik sartu beharko dira herrigunera). Horrekin batera, Arikitzaneko Zubian

noranzkoa aldatu da, Bidebarrieta Ibarkurutzerekin lotzeko. Hala ere, 10 metro baino gehiagoko ibilgailuak ezin izango dira hortik sartu eta, horregatik, aldaketak egon dira Bilborako noranzkoan dauden autobus geltokietan: Barrenako geltokia Barrena 21era (Dia supermerkatuaren parera) lekualdatu dute, eta Urkizuko autobus-geltokia Errebalera. Lanek 20 asteko iraupena izatea dago aurreikusita.

Barakaldo kaleko igogailu berria martxan hasi da

S.H. Astelehenaz geroztik, martxan da Barakaldo kaleko igogailu berria. Udalaren arabera, azpiegitura horrek oinezkoen irisgarritasuna hobetzeaz gain, Estaziño-Azitain pasealekuarekiko lotura indartzen du. Proiektua Next Generation EU funtsen bidez finantzatu da. Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriko Sailaren eta Eibarko Udalaren arteko lankidetzari esker gauzatu da, eta Euskal Trenbide Sarea (ETS) arduratu da lanak egiteaz.



M. Langileok
ERAGIN

Etxebizitza eskubidea
Kalitatezko zerbitzu publikoak
Soldata eta pentsio duinak

EIBAR
MANIFESTAZIOA
Untzaga plaza
12:30

BAZKARIA
Untzaga plaza
14:30
Daxariak: LABen Eibarko, Bergarako eta Arrasateko egoitzetan

OSTEAN, KONTZERTUA: NEBAR

LAB
Langileok
Euzko Langile Erakundeak

LAB sindikatuak Eibarren ospatuko du aurten Maiatzaren Lehena

S.H. Maiatzaren Lehenerako LAB sindikatuak antolatutako manifestazioa Eibarren izango dela iragarri dute: Untzagatik abiatuko da, 12:30ean, “M1 Langileok eragin” goiburupean, eta aldarri nagusiak hiru hauek izango dira: etxebizitza eskubidea, kalitatezko zerbitzu publikoak, eta soldata eta pentsio duinak. Manifestazioa amaitu eta gero, ekitaldi politikoa egingo da eta, ondoren, herri bazkaria (14:30ean

Untzaga plazako arkupeetan). Aukera beganoa egongo da, eta txartelak LAB sindikatuaren Eibarko, Bergarako eta Arrasateko egoitzetan erosi daitezke (10 euro gazte, langabetu eta prekarioek, 16 euro langileek). Antolatzailleek tiketak apirilaren 27a baino lehen erosteko dei egin dute, “antolaketa-lanak errezteko”. Martitzenean aurkeztuko dute egitaraua, 17:30ean Untzagan.

Berangoko auzipetuen aldeko Amnistia Eguna bihar Ermuan

Apirilaren 18rako Amnistia Eguna antolatuta dute Herri Norteko kideek Ermuan, eta bertan Berangoko auzipetuen absoluzioa eta euskal preso politikoaren amnistia aldarrikatuko dute. Horretarako prestatu duten egitarauak egun osoa hartuko du, goizeko 11:00etan hasi eta gaueraino: hitzaldia, kontzentrazioa, bazkaria, bertso saioa, DJ gaua... Dena antolatzen aritu diren Ander Arrizabalagak eta Aitzol Lejardik kontatu dizkigute ekimenaren nondik norakoak.

SILBIA HERNANDEZ

Nortzuk dira Berangoko auzipetuak eta zer dela eta prozesatu ditu 16 lagun Audientzia Nazionalak? 2022. urtean Ibai Aginaga preso politikoa 20 urte luzeko espetxe zigorra bete ostean kartzelatik atera zen, ondorioz, Berangoko herriak merezitako ongi etorria egin zion egindako borrokaaren aitortpen gisa. Hori dela eta, audientzia nazionalak guztira 37 urteko kartzela zigorra, 171 urteko inhabilitazioa eta 76.000 euroko isuna eskatzen die 16 herritarrei, Ibai Aginaga barne. **Zergatik antolatuta duzue Amnistiaren aldeko eguna Ermuan? Zuek bezala, beste hainbatek ere antolatuta dituzte elkartasuna adierazteko ekitaldiak, ezta?**

Ermua aukeratu dugu ikusten dugulako gure bailaran amnistia osoaren aldeko aldarrikapena nahiko itzalita dagoela eta gaurkotasan handia daukalako; izan ere, preso politiko asko dauzkagu oraindik espetxean eta estatu kapitalistak langileak zigortzen jarraitzen du estatuaren interesen aurka borrokatzen dutenean, Berangokoa adibidez. Amnistiaren aldarria baztertu eta espetxeratuena izaera politikoa alde batera uzteaz gain, batzuek isiltasun adierazgarria erakutsi dute Berangoko auziaren aurrean. Hala ere, badira Berangoko auziperatuen alde elkartasuna adierazten ari direnak: Tinko amnistiaren aldeko antolakundetik, Mugimendu Sozialistatik, futbolarren sektoretik (Indar Gorri, Herri Norte, Bultzada...).



Ander Arrizabalaga eta Aitzol Lejardi biharko eguna biribila izateko aritu dira lanean, beste hainbatekin batera.

Zer aldarrikatuko duzue zapatuan Ermuan burutuko duzuen kontzentrazioan?

Lehenik eta behin Berangoko auziperatu guztien absoluzioa eta militante iraultzaileei ongi etorriak libre egiteko eskubidea. Eta bestetik, Euskal Herriaren eta sozialismoaren alde borroka egin duten militante politiko guztien amnistia osoa. Munduko beste preso politiko guztien baldintzarik gabeko askatasunarekin batera.

Maiatzaren 30erako manifestazioa dago deituta.

Hala da, manifestazioa 18:00etan hasiko da Algortan, Telletxe plazan, eta Berangon bukatuko da.

Nolako egitaraua antolatu duzue zapatutarako?

11:00etan hitzaldi batekin hasiko da goiza Lobiano kultur gunean, 13:00etan kontzentrazioarekin jarraituz herriko plazan. 14:00etan bazkaria izango da plazan bertan eta 15:30ean bertso saioa izango dugu Eskilarapekon Aitor Bizkarra, Txaber Altube eta Alexander Idoetaren eskutik. Ondoren jai giroan jarraituko dugu eguna Debabailarako bi DJren bitartez: Ander Gallastegi eibartarrarekin eta Imanol arrasatearrarekin.

Nolako eguna izatea espero duzue?

Oso parte-hartze ona espero da eta egun polita izatea espero dugu. Gainera, Ermuan Euskal Jaia da, eta jende andana espero da egunean zehar.



“Ez dira soberakinak, janaria da!” kanpaina abiatu dute

S.H. Eskolako Agenda 2030 programan parte hartu duten Eibarko zazpi ikastetxeek *Ez dira soberakinak, janaria da!* kanpaina jarri dute martxan, elikagaiak alferrik galtzearen gaineko sentsibilizazioa lantzeko asmoz. Apirilaren 20tik 30era bitartean egingo den kanpaina zazpi ikastetxeek (Urkizu, San Andres, La Salle Isasi, Amaña, Arrateko Andra Mari, J.A. Mogel Ikastola eta La Salle

Azitain) elkarrekin egindako lanaren emaitza da. Ekimenaren barruan azoetako informazio-guneak egongo dira, hitzaldiak adinekoen zentroetan, eta Rexcatering proiektuaren zabalkundea ere egingo da. Ekimenak Udaleko Ingurumen Sailaren eta Debegesaren (Debabarreneko Garapen Agentzia) babesa du.

Udaletik adierazi dutenez, “ikasleek rol aktiboa hartu dute komu-

nikazio-euskarriak (kartelak, liburuxkak eta aurkezpen digitalak) diseinatzeko orduan. Material horiek, elikagaiak alferrik galtzeak dakarren arazoa azaltzeaz gain, jarraibide praktikoak eskaintzen dituzte, eta soberakinak berreskuratzea bideratuta dagoen Rexcatering proiektua ezagutzera ematen dute”. Bestetik, jubilatuen etxeetako hitzaldiei dagokienez, egun hauek daude aurreikusita: apirilaren 20an (astelehena), 11:00etan Urkiko gizarte zentroan; eta apirilaren 23an (eguna), 11:00etan Beheko Tokia zentroan.

<p>●●●</p> <p>FUNEUSKADI</p> <p>Grupo Asistea</p>	<p>●●●</p> <p>FUNERARIA MUGICA</p> <p>Funeuskadi</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</p> <p>www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugaleta · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuartera
publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

Memoria Demokratikoaren Leku izendatu dute Eibar

Espainiako Gobernuak eta Eibarko Udalak Eibarko Hiria Memoria Demokratikoaren Leku izendatzen duen oroitzapenezko plaka jarri zuten martitzenean, apirilaren 14an, udaletxeko fatxadan. Ekitaldian Espainiako Gobernuko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak hartu zuten parte, Eibarko udal ordezkariekin batera: Pablo Bustinduy Gizarte Eskubide, Kontsumo eta 2030 Agendako ministroa, Fernando Martinez Memoria Demokratikoaren Estatuko idazkaria, Jon Iraola Eibarko alkatea, Marisol Garmendia Espainiako Gobernuko Euskal Herriko ordezkaria eta Arritxu Marañon Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren Sailburuordea. Ekitaldia amaitu eta, jarraian, Eibarko sozialistek urteroko moduan gogoratu zuten Errepublikaren aldarria. Eta, arratsaldean, Cristina Almeida, Cristina Almeida, Manuela Carmena eta Paca Sauquilloren solasaldiak Coliseo antzokia bete zuten.

Testua eta argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**





Pablo Bustinduy ministroak lotura berezia du Eibarrekin, Bigarren Errepublikaldarrikatu zenean Eibarko zinegotzia zen Gregorio Bustinduyren biloba da eta. Ezkerrean, senideekin egindako argazkia.

“Arrazista ez izatea kontzeptu hutsala da, gertatzen ari dena ulertzeko lehen fasea soilik”

NONTOKOZO SABIC • Klima eta justizia sozialaren aldeko defendatzailea



“Ubuntu bantu ngunien” kontzeptu kultural, etiko eta politikoa da, pertsonen arteko harremanetan zintotasuna bilatzen duena. Hortik abiatuta, Nontokozo Sabic klima eta justizia sozialaren aldeko defendatzaileak ‘Konturatu gabe arrazakeria erreproduzitzen ari al zara kolektiboan?’ izeneko formakuntza saioa eskainiko du asteburuan, apirilaren 18an eta 19an, Errebal Plazan.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Asteburuko formakuntza antiarrazista pertsona zurie dago zuzenduta. Izan ere, bertan, zuria izateak zer esan nahi duen hausnartu eta horren arabera jarduteko beharra landuko da. Horrela, tailer honetan zurtasunaren esanahia aztertuko dute, zurion pribilegioak ulertzeko lanketa egitearekin batera.

Nolakoa izango da asteburuan eskainiko duzun formakuntza? Zer landuko duzue?

Arrazismoa prozesatzeko espazioa izango da, gorputz zuria duten pertsoneri zuzendua. Hego Afrikatik nator eta nire bizitzaren erdigunea, nire bizitzaren filosofia, Ubuntu da. “Ni naiz, garelako” esaldiarekin itzuli daiteke. Komunitatearen filosofia da, zirkuluan ezartzea eta dolua, arazoak eta abar prozesatzea. Hortik abiatuta egiten dut lan, ez erruduntasunetik edo lotsatik. Normala da gai honekin pertsona zuriak errudun sentitzea; gai deserosoa izan daiteke, eta trauma eta dolua ere ekar dezake. Beraz, pertsona zuriak min eta banatze-dolu horrekin konektatzeko espazio bat sortzen saiatzen naiz. Dolua ez da berdina izango pertsona arrazializatuekin edo beltzeekin, baina ‘mundu honetan pertsona zuria izatea zer den’ kontzeptuarekin konek-

tatzea nahi dut hori guztia prozesatzeko. Era berean, zenbait espaziotan pertsona moduan nola mugitzen garen begiratzen dugu. Formakuntzetan parte hartzen duten lagun asko mugimendu sozialetatik datoz, askok migranteekin egiten dute lan... Batzuek harremanak dituzte pertsona arrazializatuekin eta pentsatzen dute horrekin lan guztia egina dagoela, baina lana ez da bakarrik jakinduria edo buruan berba eta kontzeptu batzuk edukitzea, nerbio-sistemarekin egin behar da lan, hor bizi direlako gure iritziak eta usteak. Beraz, ondo dago ezagutza edukitzea eta liburu jakin batzuk irakurtzea, baina baita emozioekin konektatzea eta egunerokoan gai honekin nola jokatzeko dugun ikustea ere.

Zein ezberdintasun dago ez arrazista izatearen eta antiarrazista izatearen artean?

Beharrezkoa da antiarrazista izatea. Akzioa erakusten du horrek. Arrazista ez izatea kontzeptu hutsala da, gertatzen ari dena ulertzeko lehen fasea soilik. Arriskutsua izan daiteke. Izan ere, arrazista ez dela dioen pertsona zuri batek erakusten du ez dakiela arrazismoak zein esanahi duen, ezta zuria izateak zein esanahi duen ere. Pertsona horrek ez du ulertzen sistema politikoen nola funtzionatzen duten eta niretzat arriskutsua da, zerbait arrazista egiten duenean ezin diodalako ezer



Arrazismoa prozesatzeko espazioa sortuko du asteburuan Nontokozo Sabicek Errebalean. UBUNTU CO-CREATE

esan, ez duelako harrapatuko, ‘ez naiz arrazista’ aldar-tean dagoelako. Ezinezkoa da zuria eta mundu honetan jaioa izatea eta zure barrenean ez edukitzea zuritasun hori, beste arraza batzuetako pertsonak baino hobea zarela esaten dizuna. Ezinezkoa da. Beraz, honekin hasi behar dugu: “Badakit arrazista naizela eta ez da nire errua zuri jaio izatea, sisteman dagoen zerbait delako, baina lan bat egiten ari naiz hori aldatzeko”. Bizitza osorako lana da.

Agian hitz gutxitan azaltzea zaila da, baina zer da arrazismoa?

Arrazismoa ez da zure eta nire artean gertatzen dena bakarrik. Izan daiteke, baina ez da hori bakarrik, sistemikoa ere bada. Politika maila gorenean, egiturazko arrazismoak erabakitzen du zein bizitza diren garrantzitsuenak, nortzuk merezi duten bizitza eta nortzuk ez. Egiturazko arrazismoa hezkuntzan ikusi dezakegu, baita osasungintzan ere, poliziaan... Eta bestetik, eguneroko arrazismoa dugu: lankideen artean, lagunekin gaudenean, bikoteekin, familian... Jendeak pentsatzen du arrazismoa gauza zatarrak esatea dela, VOX alderdia babesten dutenek bakarrik praktikatzan

“Arrazismoa zer den ulertzeko, ulertu nahi duen pertsona hori deseroso sentitzeko prest egon behar da, oso lan deserosoa delako”

dutela arrazismoa, baina ez da horrela. Arrazismoa oso sotila da batzuetan eta zaila da hitzetan jartzea. Adibidez, espazio batean sartzen naizenean eta pertsona batzuek deseroso sentiarazten nautenean, emakume beltza izateagatik ezberdin tratatzen nautelako, zer egin dezakedan eta zer ez pentsatzen dut. Hori ere bada. Arrazismoa zer den ulertzeko, ulertu nahi duen pertsona hori deseroso sentitzeko prest egon behar da, oso lan deserosoa delako. Horrek ez du esan nahi sufritu behar denik, baizik eta deseroso sentitzeko edo dolu bat pasatzeko prest egon behar zarela. Hori egin ahal izateko, espazio aproposa eduki behar da seguru

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



sentitzeko, maitasunez eta barrez inguratuta, baina baita negar egiteko ere.

Formakuntzetan parte hartzen duen jendeak nola bizi izaten du prozesua?

Jaso dudun feedbackaren arabera, formakuntzetan parte hartu duenak sentitzen du modu librean hitz egiteko eta gaiarekiko dudak eta beldurrak adierazteko espazioa aurkitzen duela. Eta ez da buruko kontua bakarrik izaten, ez dira ideiak soilik lantzen, gorpuztarekin ere konektatzen da, emozioekin. Parte-hartzaile batzuek errepikatu egin dute eta Euskal Herrian, Katalunian edo Espainian inoiz ez dut arazorik izan, baina nazioarteko talde mistoekin bai. Tentsioa eta gatazka puntu bat egon izan da, baina gero lasaitu egiten da. Hemen, ostera, formakuntzetara datorren jendeak argi du gehiago jakin eta zerbait konpondu nahi duela. Gehienek mugimendu sozialetan hartzen dute parte eta arazoak daudela ikusi izan dute, eta hori aldatu nahi dute.

Imajinatzen dut bi saio ez direla nahikoa izango aldaketa hori egiteko. Zuk zeuk esan duzu bizitza osorako lana dela.

Ez, ez dira nahikoa eta horrek asko frustratzen nau. Bai, bizitza osorako lana da. Pertsona zuriak ez daude ohituta deseroso egotera eta ez dakite zer egin deserosotasun horrekin. Ezin da izan bi egunetan etorri eta kitto. Talde txikiak egin behar dira norbere herrian, geratzeko, liburuak irakurtzeko, emozioak prozesatzeko... Horrela egiten da lan antiarrazista. Gainera, ez zara lan hori guregatik egiten ari (pertsona arrazializatuak, beltzak...), baizik eta zuregatik, denongatik, munduarengatik. Horrela aldatu daitezke gauzak, baina behin tailer batera etortzea ez da nahikoa.

Nola ikusten duzu arrazismoaren egoera Euskal Herrian, Katalunian eta Espainian? Azken urteetan egoera aldatu da?

Erantzuteko oso zaila den galdera da. Mugimendu sozialetan dauden lagun batzuek onartzen dute baietz, arrazistak direla, gizonak 'feminista naiz' dioen ka-



miseta jantzen dutenean bezala, baina errealitatean ez dute ezer egiten eguneroko pentsamenduak aldatzeko, pertsona arrazializatuekin edo beltzekin elkar eragiteko, laneko edo eguneroko harremanetarako... Esan dudun bezala, deserosoa delako eta hori landu egin behar delako. Izan ere, deserosotasuna landu eta aldatu egin daiteke. Badirudi zerbait aldatzen ari dela, baina oinarrian ez. Triste da. Pertsona asko migrazioaren kontrakoak dira eta gizarte mugimenduetako pertsona zurien bihotzak eta ideiak bide onean daude, baina ez dira modu sakonean lan egiten ari benetako aldaketa egiteko. Orain dela hiru hilabete Menorcan egon nintzen tailer bat eskaintzeko eta 'aliatu faltsuaren' figura irten zen, eta hori da kontua hain zuzen ere.

Asteburuko formakuntza hasierako pausoa izan daiteke askorentzat. Bide bat zabaldu dezake?

Bai, guztiz! Nonbaitetik hasi behar da eta formakuntza honekin bide bat irekitzen da. Arrazismoaren inguruko saio batean 20 lagunek hartzen badute parte, pentsatu behar duzu hortik lau lagun irtengo direla lan hori egiten jarraitzeko asmoarekin. Besteek pentsatuko dute esperientzia polita izan dela, baina euren bizitzarekin jarraituko dute ezer egin gabe. Tira, poliki-poliki, aldaketa ezin da behartu, ez dago besterik.

db!

DEBABARRENEAN ZEHAR



PLANA
bi!



Saio honetan, Bigarren Errepublikaren aldarrikapena gogora ekarri dugu; izan ere, duela 95 urte, Espainiako estatu osoan errepublika aldarrikatu zuen lehen herria izan zen Eibar. Jesús Gutiérrezz historialariarekin bisita gidatua egin dugu, geldialdiz geldialdi garaia berriz ezagutzen. Helburua memoria historikoa lantzea izan da. Beste behin ere, Eibar lehen!

ALBISTEAK

Berangoko auzipetuen aldeko Amnistia Eguna egingo da bihar, zapatua, Ermuan, egun osoko egitarauarekin.

Eibarko Mendiak Bizirik plataformak agerraldia egin du Gipuzkoako Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordean.



Apr 17

IKUSK.	"SUSTRAI" ZIRKU GARAIKIDEA	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
MUSIK.	SLIDE ETA MISE EN ABYME	19:00	GURIDI (EIBAR)
MUSIK.	ERALDATZEN + T.A.K.E (TRIBUNA A KAOS ETILIKO Y KAOTIKO)	19:00	ZAIZOI (EIBAR)
ANTZ.	KOLAPSOA	19:00	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
IRTEER.	GAUEKO ZERUA EZAGUTZEKO	20:30	IDOTORBE (ELGOIBAR)
ERAKUS.	PALESTINA: IBILBIDE HISTORIKOA	20:30	STA MARIA KLAUST. (DEBA)
IPUIN	ONGI ETORRI GURE HERRIKO TABERNAN ELKARTU ZIREN ISTORIOAK	18:30	ZABIEL KULTUR ETXEAN (MUTRIKU)

Apr 18

IPUIN	PATCHWORK STORIES HANNAH BERRYREN ESKUTIK	17:30	LIBURUTEGIA (ERMUA)
JARD.	AMNISTIA EGUNA	11:00tik	PLAZA... (ERMUA)
OSPAK.	EUSKAL JAIA	19:00	ORBE (ERMUA)
LASTER	KILIMON TRAIL	16:00	ENPARANTZA (MENDARO)
EKOL.	IBAI GARBIKETA	09:30	PLAZA BARRI (SORAL)
IKUSK.	LA PULGA: UFADAK	17:00	PLAZA BARRI (SORAL)
IBILBID.	MAREARTEKO ZABAL- GUNERA BISITAGIDATUA	11:00	SAKONETA (ITZIAR)
TXAPEL.	HIRU TXIRLO GIPUZKOA	17:00	LASTUR (ITZIAR)
IKUSK.	ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN	18:00	ISPILUEN GELA (DEBA)
MUSIK.	KRETAKO MUSIKA	20:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)
IRTEER.	BASONDO YUM YARD	15:45 15:45	(MALLABIA)

Apr 19

TOPAK.	GURE IPUIN KUTTUNAK	11:00	UME TXOKOA (SORALUZE)
IKUSK.	'KAY ROBOT' TXOTXONGILOAK	17:30	ISPILUEN GELA (DEBA)
ANTZER.	LA COSA	18:30	SAN AGUSTIN (MENDARO)
MUSIK.	ERIC STECKEL	19:00	COLISEO (EIBAR)

Argazkilaritzak beteko du maiatza

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik, abian da 2026ko Argazkilaritza Maiatzean. Atzo aurkeztu zuten ekitaldia eta, azaldu zutenez, aurten ere lehen mailako erakusketak prestatu dituzte. Horrekin batera, hilabete osoa hartuko duen egitarauaren baitan bestelako jarduerak daude: Javier Sanchez-Mongerren eskutik argazkigintza dokumentalari buruzko tailerra eskainiko da, Topaketak Kalean jardunaldia ospatuko dute eta, egitarauari urrezko brotxea ipintzeko, Argazki Rallya egingo da maiatzeko azken egunean.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

Sei erakusketa izango dira guztira, eta denak aldi berean inauguratuko dituzte maiatzaren 8an, barixakuan. Portaleko erakusketa aretoan hasiko dira, 19:00etan. Lau erakusketa ipiniko dira bertan ikusgai: Eugenio Fieni, Angel J. Sanchez eta Jaime de Prado argazkilarien lanekin batera, Argizaiola lehiaketara aurkeztutako lanak ikusi ahaliko dira. Jarraian, Topalekura abiatuko dira, hango erakusketa inauguratzeko. Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartek antolatzen duen Gipuzkoa Nazioarteko Saria lehiaketan saritutako lanak ipiniko dituzte ikusgai. Eta, Portalea tabernan, Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain eibartarren argazkiak ikusteko aukera egongo da. Horrekin batera, hilabete osoa hartuko duen egitarauaren baitan bestelako jarduerak daude: Javier Sánchez-Monge argazkilaria-



ren eskutik argazkigintza dokumentalari buruzko tailerra eskainiko da, Topaketak Kalean jardunaldia ospatuko dute, eta egitarauari urrezko brotxea ipintzeko, Argazki Rallya egingo da maiatzeko azken egunean, Euskal Jaiko domekarekin bat eginez.

Lau erakusketa Portalean

Nenet herria. Bizitza Artikoan izenekoa da Portalean zabalduko dituzten lau erakusketetako bat. Antolatzaileek adierazi dutenez, “Reus-eko FotoArt elkarteari esker, Eugenio Fieni argazkilaritza italiararren erakusketa polit hau aurkeztuko dugu. Bere irudien bitartez Nenet izeneko herriaren bizimodua nolako den ikusi ahaliko dugu, baita Artikoko paisaiak ere”. Nenetak Errusiako herri indigena bat dira, samoiu jatorrikoak. Elur-oreinen artzainak dira, eta 6.000 urte baino gehiago daramatzate Siberiako ipa-



Eugenio Fieni italiarraren "Nenet herria. Bizitza Artikoan" erakusketak Errusiako herri indigena horren bizimodua gerturatuko digu.

rraldeko muturrean bizitzen, Kanin penintsulatik Tajmyr penintsularainoko lurraldean, Ob, Yenisey eta Pur ibai handien inguruan. Gaur egun 45.000 nenet dira, horietatik 27.000 inguru Yamal penintsulan daude, eta 500.000 elur-orein inguru kudeatzen dituzte.

Oso bestelako irudiak erakutsiko dizkigu Jaime de Pradok. Bodegoi-argazkigintzan espezializatuta dagoen argazkilari honek, argazkia atera aurretik, muntaiak egiten ditu, eta batzuetan astebetetik gora ematen du horrelako lanetan. Argazkilariak berak dioenez, "nire lan guztiak etxeko garajejan egokitu nuen estudioan egin izan ditut".

Aipatutako bi hauekin batera hirugarren erakusketa bat, Angel J. Sanchezen "Babel" izenekoa ikusi ahal izango da. Argazkilari honen estiloa ere bere-berea da, eta honakoa adierazi du: "Babel hiperkonektatutako gizonaren bakardadearen

>>> Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kideentzat urteko hitzordurik garrantzitsuena izaten da, eta urte osoa ematen dute lanean, dena antolatzeko.

>>> Horrelako maila handia duten argazkilarien lanak herri bakar batean eta aldi berean ikusteko aukerarik ez da izaten Eibartik kanpora.

erretratua da: zarataz inguratua, baina bere baitatik urrun. Etenik gabe taupadaka ari diren hiri hauek, arkitekturak ispilu gupidagabe gisa jokatzen du: tenplu itzelak, non pentsamendu kritikorik ezak eta sentitzeari uzten diogun horren oihartzunak durunda egiten duten.

Geometria zorrotzen eta isilune astunen artean, egia deseroso bat agertzen da: ez dago norberarengandik desagertzea baino bakardade handiagorik".

Portaleko laugarren erakusketan, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak antolatzen duen Gipuzkoa Nazioar-



Bodegoi-argazkigintzan espezializatuta dagoen Jaime de Pradoren argazkiek aurre-lanketa bat behar izaten dute, eta argazkilariak berak dioenez, etxeko garajea estudio gisa erabiltzen du. Goiko irudian, 'Azken Afaria'. JAIME DE PRADO

>>> Maiatzaren 8an, barixakuan zabalduko dituzte erakusketa guztiak, eta Portaleko erakusketa aretoan, Topalekun eta Portalea jatetxean ipiniko dituzte ikusgai, hilabetez.

>>> laz bezala, aurten ere argazkigintza dokumentalari buruzko tailerra eskainiko dute; zortzi orduko ikastaro trinkoa izango da eta izen-ematea zabalik dago.

teko Saria lehiaketan saritutako lanakerakutsiko dituzte. Iazko edizio irabazlea Marian Plaino errumaniarra izan zen, Shapes izeneko lanarekin, baina gure inguruko beste argazkilari batzuek ere saria jaso zuten: Oscar Manso, Vladimiro Garcia, Jose Angel Amuchastegui,

Jose Agustin Gurruchaga, Javier Ortiz, Jose Luis Iraola, Pedro Luis Ajuriaguerra, Anael Corea, Igor Altuna, Ibon Perez, Andres Basilio, Gorka Elarre, Bosco Mercadal, Emy De Lema eta Manu Barreiro.

Portaleko erakusketa aretoan egongo dira ikusgai lau erakuske-

ta hauek, eta martitzenetik domekara joan ahalko da, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Portalea tabernan, berriz, Eibar-ko Klub Deportiboko Argazkilaritza taldeko bi emakumeren lanarikusi ahalko dira. Lanzarote uharteari buruzko argazkiak erakutsiko dituzte biek, "bakoitzak bere estiloarekin, kolorez betetako bilduma osatu dute elkarrekin, ikusgarria benetan".

Tailerra Javier Sanchez-Mongerekin Antolatzaileen berbetan, "aurten antolatu dugun tailerra lehen mailakoa izango da. Javier Sanchez-Monge argazkilaria guregana gerturatu da, argazkigintza dokumentalari buruz aritzeko. 8 orduko tailer trinko honetan, proiektu dokumental baten sorrera, aurretiazko ikerketa, lan-metodologia eta kontakizun bisual sendo baten eraikuntza landuko dira. Programak testuinguru konplexuetara sartzeko estrategiak,

fixerraren funtzioa, oharkabeen pasatzeko artea, argazkietan agerzen diren pertsonen psikologia eta argazkilari dokumentalaren trebetasun sozialak biltzen ditu”.

Saioa maiatzaren 9an (zapatua) izango da, 10:00etatik 13:45era eta 10:00etatik 20:00etara, Portalean. Plazak mugatuak izango dira eta, izena emateko, argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi behar da. Tailerraren prezioa 20 eurokoa da.

Topaketak kalean

Handik bi astera, maiatzaren 23an (zapatua), topaketa egingo da kalean, Untzagan, 17:00etatik 20:30era. Bertan, erretratoak egingo dira (Fotoprixen eskutik etxera eraman ahal izango dira argazkiak, doan), argazki-erakusketak egongo dira... Deporreko argazkilarien berbetan, “betiko moduan, dohainik izango da dena. Asmoa argazkilaritza herritar guztiei gerturatzea da”.

Rallya digitalean eta zuri-beltzean

Eta, hilabeteko egitarauarekin amaitzeko, hilaren 31n argazki rallya egingo da. Oinarriak laster kaleratuko dituzte, baina jakina da argazkiak zuri-beltzean eta digitalean egin ahal izango direla, rallya Klub Deportibotik 08:30-09:30 inguruan abiatuko dela, eta 13:30ean amaituko dela. Beste urte batzuetan bezala, Eibarko Euskal Jaiko domeka aukeratu dute argazki rallya egiteko. Izan ere, rallya festa handia izaten da argazkilari eta zaletu askorentzat, eta, urtero, jende asko etortzen omen da kanpotik, rallyan parte hartzeko.



Argazkilaria ez ezik, abenturazalea, idazlea eta filosofoa den Javier Sanchez-Mongek emango du argazkigintza dokumentalari buruzko tailerra.



ENEKO RAMON

Etxebizitza ez da eskubide bat bakarrik

Gauza gutxik sortzen dute etxebizitza eskubideak adina kontsentsu. Eta gutxik sortzen dituzte hainbeste kontraesan errealitatean lurreratzen direnean. Denok gaude ados funtsezkoan: **bizitzeak ez luke pribilegioa izan behar**. Etxebizitza duin bat eskuratzeko aukera izatea eztaba daezina dirudi. Arazoa sortzen da printzipio hori hain erraz ezagutzen ez den zerbaitekin gurutzatzen denean.

Izan ere, praktikan, etxebizitza ez dugu eskubide gisa soilik tratatzen. Askorentzat, bere bizitzako inbertsiorik handiena da. Beste batzuentzat, etorkizuna ziurtatzeko modu bat. Etxebizitzak ez du funtzio soziala soilik betetzen, aktibo gisa ere jokaten du.

Hor hasten da deserosotasuna.

Prezioak jaitea nahi dugu... baina ez gure etxeokak. Alokairu merkeak nahi ditugu... salbu eta geuk alokatzen ditugunean. Sarbide unibertsala defendatzen dugu... etxebizitzak balioa irabazi behar duela onartzen dugun bitartean.

Eta bada ondo azaltzen duen ideia bat oso zabaldua: jende askok etxe bat erosten du ez bakarrik bizitzeko, baizik eta babesteko modu bat bezala. Eta hori, egunen batean gaizki emanak badatoz, saldu egin daiteke, eta bigarren aukera bihurtu.

Ez da hipokresia. Hamarkadak horrela funtzionatzen daraman sistema baten ondorioa da. Etxebizitza segurtasun sare bihurtu dugu eta, aldi berean, eskubide bermatu gisa funtzionatzea exijitzen diogu. Gauza biak dira zilegi, baina batera irtenbide sinplerik gabeko tentsioa sortzen dute.

Hala ere, eztabaida publikoa gutxitan sartzten da hor. Sinplifikatu egiten da. Onen eta gaiztoen eztabaida bihurtzen da, arazoa den baino errazagoa balitz bezala. Hiri handietan edo herri txikietan, patroia errepikatu egiten da: elkarriketa ideia argiekin hasten da... eta interes zehatzekin talka egiten amaitzen du.

Agian horregatik kostatzen da hainbeste aurrera egitea. Ez diagnostikoak falta direlako, baizik eta kontraesana aitortzea kostatzen zaigulako.

Izan ere, etxebizitza ez da esaten duguna bakarrik.


Behar duguna ere bada.

“Etxebizitza ez dugu eskubide gisa soilik tratatzen. Askorentzat, bere bizitzako inbertsiorik handiena da. Beste batzuentzat, etorkizuna ziurtatzeko modu bat”



Eztei eta jaunartzeak

ezteiak



Maitasuna etiketarik gabe

Ezkontzak beti izan dira momentu bereziak. Baina gaur egun, gero eta gehiago dira istorio propioa kontatu nahi duten bikoteak, inolako molde zaharrei lotu gabe. Horren adibide garbia dira sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak: naturalak, hurbilak eta, batez ere, benetakoak.

2005ean, José Luis Rodríguez Zapateroren gobernuarekin, Españan berdintasuneko ezkontza lege bihurtu zenetik, asko aldatu da panorama. Gaur egun, zorionez, gero eta ohikoagoa da bi emakume edo bi gizon “bai, nahi dut” esaten ikustea, inolako azalpenik eman beharrik gabe.



KILIKLIK

“Gurea gure modura”

Laura eta Mainer iaz ezkondu ziren, lagun eta senide artean, giro goxoan. Ez zuten protokolo handirik jarraitu: bakoitzak bere estiloko soinekoa aukeratu zuen, eta momenturik hunkigarriena... euren idatzitako hitzak izan ziren. “Ez genuen pelikula bateko ezkontza bat nahi. Gurea nahi genuen, gure modura egina”, diote.

“Hasieran, hornitzaile batzuekin egoera arraroak bizi izan genituen”, kontatzen dute. “Galdera tipikoa: ‘nor da andregai?’. Eta guk: ba... biok gara!”. Baina, oro har, esperientzia “polita eta erraza” izan zela diote.


Carlosek eta Andresek, urte asko elkarrekin eman ondoren, pausoa ematea erabaki zuten: “Guk ez genuen presarik, baina momentua iritsi zela sentitu genuen. Guretzat, ospakizuna baino gehiago izan zen bidean egindako guztia aitortzeko modua”.

Azken urteetako joerak: ezkontzak ere aldatu egin dira

Azken urteetan, ezkontzak asko aldatu dira. Lehen “egin beharreko zerbait” zen neurri batean; gaur egun, berriz, bikote askok esperientzia pertsonal bat sortu nahi dute, bere gustu eta balioen arabera. Ideia nagusi bat errepikatzen da: “Gure ezkontza, gure arauak”.

Gero eta ohikoagoak dira ezkontza txikiagoak eta intimoagoak, lagun eta senide hurbilen artean ospatutakoak. Aldi berean, pertsonalizazioa bihurtu da ardatz nagusi: musika, dekorazioa edo zeremonia bera bikotearen neurriera egokitzen dira.

Jasangarritasuna ere indarra hartzen ari da: material birziklatuak, tokiko produktuak edo gonbidapen digitalak gero eta gehiago ikusten dira.



KILIKLIK

KERALA JORGE DE LA GARZA
 www.estetikakerala.es
 www.cosmeticadelbienestar.es
Urkizu, 11 solainuartea 943 53 05 25
Makillajea Etxean Bertan
 Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak,
 Emaztegalendako BONO BEREZIA...

ROSANA
 ILEAPAINDEGIA
943 120624
 URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

umea
 Errebal 16
 943 20 31 64

IBONE
 ESTETIKA
 Tel. 943 20 16 01 Romualdo Galdos, 10 - b



KILIKLIK

Estetikaren aldetik, naturaltasuna eta sinpletasuna nagusitzen dira, eta gero eta gehiago baloratzen da giro goxoa eta benetakoa sortzea.

Eta badago beste joera bat ere: esperientziarena. Ezkontzak ez dira egun bakarreko kontua askotan; asteburu osoko ospakizunak edo gonbidatuentzako bizipen bereziak bihurtzen ari dira.

Joera horiek guztiak are nabarmenagoak dira sexu bereko bikoteen kasuan. Izan ere, askotan ez dute tra-

dizio jakin bati jarraitu beharrik sentitzen, eta horrek askatasun handiagoa ematen die. Horregatik, ohikoa da: protokolo gutxiago eta sormen gehiago; janzkera askotarikoak; zeremonia oso pertsonalak eta bikotearen nortasuna lehen lerroan jartzea.

Azkenean, detaile guztiak alde batera utzita, badago beti errepikatzen den zerbait: bi pertsona elkar aukeratzen ari direla. Eta hori, edozein ezkontzatan, berdin-berdin sentitzen da.



ROCA
Calbeton 16, Eibar
Tel: 943 20 90 06
Ezkontza eta egun berezietan zurekin!!





KILIKLIK

fasprint
inprimategia

EZKONTZA GONBIDAPENAK
gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

SERIGRAFIA

☎ 943 20 16 13 📠 688 68 73 85 Ego-Gain, 11 ac
fasprintei@yahoo.es www.fasprinteibar.com

Lakett
estetika & masaje

- Aupegiko tratamenduak
- Gorputzeko zaintza
- Wellnes tratamenduak
- Manikurak eta pedikurak

zuen egunik garrantzitsuenan elkarrekin egiteko prezioa

www.lakett.com Tel 943 530066 Zezen bide 4

“TIRO PITXOI JATETXEA”

Arraten

- Eguneko menua
- Menu pertsonalizatuak
- Menu bereziak
- Karta...

Ezkontzak
- Ospakizunak...

TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

943 20 17 33
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

Betidanik esku onetan!

Isasi, 20

Eibarbus

Udaberri-uda: denboraldi honetako ezkontzak

Udaberria eta uda dira, urtez urte, ezkontzetarako garairik gustukoena. Eguraldi onak eta egun luzeek ospakizun bereziak sortzeko aukera ematen dute, eta hori nabari da joeretan ere.

Aurtengo denboraldian, koloreak eta giroak berebiziko garrantzia hartzen ari dira. Tonu leunak eta naturalak —beixak, berdeak, arrosak— nagusitzen dira, baina gero eta gehiago ikusten dira ukitu biziagoak ere, batez ere loreetan eta detaileetan.

Kanpoko espazioak dira protagonista nagusiak: lorategiak, landetxeak edo hondartzak inguruko ospakizunak. Naturarekin konektatutako ezkontzak bilatzen dira, giro lasaiago eta hurbilago batekin.

Janzkerari dagokionez, arintasuna eta erosotasuna dira giltzarri. Oihal arinak, traje informala-goak eta bigarren look-ak gero eta ohikoagoak dira, batez ere festa zatirako.

Bestalde, gastronomiak ere badu bere tokia: tokiko produktuak, formatu informala-goak (food truck-ak, buffet bereziak...) eta esperientzia gastronomikoak gero eta presentean daude.



CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

AURPEGI TRATAMENDUAK

Azalaren diagnostiko zehatza

Skin-touch

GORPUTZ TRATAMENDUAK

Gorputzaren birmoldaketarako behin-betiko konponbidea:

- IZTERRAK
- IPUR-MASAILAK
- BESOAK
- SABELALDEA

- MANIKURAK
- PEDIKURAK
- BETILE LUZAPENAK
- LIFTING

LANDARE Belleza Saludable

Estaziño, 4 943 254776

Ezagutu edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin

LANDARE Belleza Saludable

SECRETOS del agua

Izadi

LORA DENDA

San Juan 1
tel. 943 20 33 29

Enkarguak etxera

Untzaga plaza, 8
943 20 76 21

ANSA BITXIDENDA

Zein dotore!



BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE EZKONTZA ZURE NEURRIRA!




SAN MIGUEL GAINA, 44 · ELGOIBAR

943 74 31 02

WWW.BELAUSTEGI.COM

jaunar- tzeak



Lehen Jaunartzea ez da haur baten eguna soilik, baizik eta familia eta gonbidatu guztientzat esperientzia oso bihurtzen den ospakizuna.

Eibarren eta inguruan aukera zabala dago gonbidatuak eroso eta gustura sentiarazteko: jatetxe eta catering zerbitzuak, menu bereziekin eta dieta desberdinetara egokituta; espazio zabal eta erosoak, familia giro lasaian ospatzeko; arropa-dendak, bitxi-dendak, ilepaindegiak eta estetika-zentroak...

2026ko jaunartzeetan gero eta gehiago nabaritzen da estilo natural eta dotorearen aldeko joera. Jantziak sinpleagoak dira, gehiegizko apaingarririk gabeak, eta kolore leunek protagonismo handiagoa hartu dute, hala nola zurixka, beixa edo tonu hautsatuak. Helburua da itxura zaindua baina aldi berean eroso lortzea, bai umeentzat bai gonbidatuentzat.

Ohiko opariak

Jaunartzeetan oparirik ohikoenak dirua eta balio praktikoa duten objektuak izaten dira. Azken urteotan, teknologia gailuek ere indarra hartu dute, hala nola tabletak edo erloju adimendunak. Bestalde, bitxiak edo oroigarri pertsonalizatuak ere oso estimatuak dira, egun berezi honen oroitzapen gisa. Gero eta gehiago, esperientziak oparitzea ere ohikoa bihurtzen ari da, adibidez bidaiak edo aisialdiko jarduerak.



KILIKLIK

kili_klik  

kili  klik

argazkilaritza fotografia

www.kiliklik.eus

646114443 • kilimaksortzen@gmail.com
Indalecio Ojanguren 1 behea


INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Neurrira egindako software-aren garapena

Marka guztietako zerbitzu teknikoak eta salmenta



San Agustin, 3   943 20 41 81

Kopina

Momentu berezietarako
BILDUMA BERRIA





Euskararen sustapenean zure ekarpena egiteko aukera izango duzu.

Herriko produktuak eta zerbitzuak ezagutzera emateko **erakusleiho ezinhobea** da.

PARTE
HARTU

ARRATEKO TONBOLAN!

Hogei urte baino gehiago dira ...eta kitto! Euskara Elkartea Kittonbola antolatzen hasi zela **Arrate egunean** eta dozenaka dira urtero tonbolarekin bat egiten duten establezimenduak (taberna, denda, negozio, enpresa...)



Ematen duzuna (menuak, arropa, produktuak, jatekoak...) **saria izango da tonbolan.** Trukean doako **publizitatea:** Establezimenduaren izena agertuko da bi aletan eta egunean bertan tonbolan.

Informazio
gehiagorako:

943200918

elkartea@etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkartea

“Bigarren diskoko abestiak gehiago gustatzen zaizkit lehenengokoak baino”

XABIER BADIOLA • Musikaria



Eibarko kantugileak bere bigarren lana aurkeztu du: 'Leiho Ondoan Xori Bat'. Euskarazko hamar kantuz osatutako diskoa da. Abadetxe estudioan grabatu dute lana, eta soinu xume eta gertukoa du ezaugarri nagusi. Diskoa jada entzungai dago sarean.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Xabier Badiola musikari eibartarrak bere bigarren diskoa kaleratu du, 'Leiho ondoan xori bat'. Lehen lanetik hiru urtera iritsi da disko berria, eta bertan bilakaera nabarmena sumatzen da, bai alderdi teknikoan, bai sortzailearen ikuspegian. Lan intimista eta soila da, entzuleari interpretaziorako tartea uzten diona. Euskarazko hamar kantuz osatuta dago, eta jada entzungai dago sarean.

Hiru urte igaro dira lehenengo diskoa kaleratu zenuenetik. Zer ikasi duzu denbora honetan?

Hasieran, beste talde batzuetan jotzetik bakarka aritzera igarotzean, kontzertuetan eskatzen den gertutasuna lantzea izan da erronka handiena, eta uste dut horretan asko hobetu dudala. Teknikoki ere bai, abesten eta gitarra jotzen aurrerapausoak eman ditut. Lehenengo diskoa bi zatitan grabatu nuen —gitarra alde batetik eta ahotsa bestetik—, eta oraingoan, berriz, dena toma bakarrean grabatu dut. Alde psikologikotik ere bilakaera bat egon dela esango nuke.

Maila pertsonalean ere aldaketak izango zenituen hiru urte hauetan.

Bai, noski. Musikan dena oso azkar aldatzen da. Diskoko abestiak idatzi nituenetik grabatu nituenerako aldatu nintzen ni, eta abestiak ere bai. Eta grabatu nuenetik hona ere beste horrenbeste. Etengabeko mugimenduan dagoen prozesua da.

Noiz hasi zinen diskoa sortzen?

2024ko udan hasi nintzen abestiak idazten, eta azkena azaroan amaitu nuen. Abenduan hasi nintzen grabatzen, eta nire zatia martxoan bukatu nuen. Gero kolaborazioak ere izan dira, Jone Laspiurrekin eta Eñaut Zubizarretarekin, eta horrek denbora gehiago luzatu du prozesua.

Nola baloratzen duzu disko berria?

Oso gustura nago. Egia esan, bigarren diskoko abestiak gehiago gustatzen zaizkit lehenengoak baino. Bilakaera nabari dut bai harmonian, bai abestiak egiteko moduan, eta baita letretan ere. Soinuarekin ere oso pozik nago; Xabi Agirrerekin grabatu dut, eta hasieratik genuen ideia ondo jaso du: “Produkzioaren ez-produkzioa”. Hau da, estudioan sortzen den giro hori ahalik eta modu fidelenean etxeko entzulearengana eramatea.

Zure musikaz hitz egitean, etxeko giro edo goxotasun hori askotan aipatzen duzu. Nola definituko zenuke zure estiloa?

Instrumentazioari dagokionez, musika soila da, zuzena izan daiteke. Bestalde, letretan saiatzen naiz ez hain esplizitua izaten. Ez zait gustatzen dena azaltzea edo itxita uztea; nahiago dut gauzak interpretaziorako irekita uztea. Entzuleari dena emanda ematea baino, bakoitzak bere modura ulertzeko aukera izatea baloratzen dut. Zentzu horretan, Oliver Laxe zuzendaria etortzen zait burura. Azkenean, obra bat “objektu” moduan ulertzen dut: bere osotasunean badu zentzua,



Xabier Badiola musikagilea XABIERBADIOLA

baina norbanako bakoitzak bere interpretazioa egiten du. Nik neuk ere gaur egun ez ditut kantuak sortu nituenean bezala interpretatzen.

Diskoaren izenak zer esanahi du zuretzat?

Bere garaian banuen arrazoi bat titulu hori jartzeko. Leihoaren kontzeptua gustatzen zitzaidan: leihoa zabalik dago ala itxita? Txoria non dago? Gaur egun, nolabait, puzzle infinitu bat da niretzat. Diskoa aurrera joan ahala etorri zitzaidan ideia.

Askotan, sortzaileok egoera emozional eta kreatibo jakin batzuetan egiten ditugu lanak, eta une horretan ez dugu argi ikusten osotasunean zer zentzu duen. Baina amaieran badirudi dena bere tokian kokatzen dela. Hasieran pentsatzen nuen izenak ez zuela lotura handirik egindako lanarekin, baina orain, atzera begirata, ikusten dut baietz, diskoaren edukia ondo laburbiltzen duela.

Xabirekin brometan “tesia” deitzen genion. Diskoan bertan ere agertzen da nolabait txoriaren ideia, baina ez modu esplizituan; ezkutuan dago, iradokita.

“Instrumentazioari dagokionez, musika soila da, zuzena izan daiteke. Bestalde, letretan saiatzan naiz ez hain esplizitua izaten”

“Obra bat ‘objektu’ moduan ulertzen dut: osotasunean zentzua badu ere, norbanako bakoitzak bere interpretazioa egiten du”



Play-off postuetara jauzi egin nahi du SD Eibar-ek Huescaren aurka

E.B. Oso bolada onean dago gizonen 2. Mailan jokatzeko duen SD Eibar. Azken 18 partiduetan bi neurketa besterik ez ditu galdu eta eskura ditu play-off postuak. Talde eibartarra 8. postuan da orain, 6. dagoen Castellorengandik hiru puntura, liga amaitzeko zazpi jardunaldi geratzen direnean.

Azken jardunaldietan etxetik kanpo puntuak eskuratu dituen arren, etxean da benetan indar-

tsu SD Eibar eta hori aprobetxatu nahi du asteburu honetan. Beñat San Joseren taldeak Huesca hartuko du etzi, 18:30ean, Ipuruan, eta Aragoikoa jaitziera postuetan dagoen taldea dela baliatu nahi du play-off postuetara jauzi egiteko.

Horretarako, zaletuen animoak ezinbestekoak izango dira eta, Ipurua betetzeko asmoz, klubak 10 euroan salduko dizkiete sarrerak abonatu.

Jose Angel Fernandez nagusi Aretxabaletan

E.B. Joan den zapatuan, Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketaren 4. jaurtialdia egin zen Aretxabaletan. 76 bolarik hartu zuten parte eta Elgetako Jose Angel Fernandez gailendu zen, zazpi txirlorikin. Bigarren eta hirugarren Lasturreko Juanjo eta Gotzon Uranga izan ziren.

Eibartarrei dagokienez, Asola Berriko bolariak ez ziren lehen sailkatuen artean egon, baina bai Elgetarekin jokatzeko duen Bitor Astigarraga.

Hurrengo tiraldia Lasturren egingo da, bihar, 17:00etan.



Eibarko Hiria Sari Nagusiaren zortzigarren edizioa jokatu da domekan

E.B. Iaz urrian jokatu ondoren, aurtengo inoiz baino lehenago dator Eibarko Hiria Sari Nagusia. Domekan jokatu da zortzigarren edizioa eta maila goreneko txirrindulariek hartuko dute parte bertan. Eibarko Txirrindulari Elkartetik aurreratu dutenez, lau herrialdeetako 11 taldek eman dute izena dagoeneko.

Lasterketa neutralizatu da 10:00etan irtengo da Toribio Etxebarriatik behera eginez, Bidebarrieta kalera joateko. Handik Azitaingo

biribilgunera iritsiko dira eta hor emango zaio benetako hasiera lasterketari.

Txirrindulariek 108,5 km-ko ibilbidea egin behar dute eta bidean 3. mailako Itziar eta Meagas, 2. mailako Urkaregi eta lehen mailako Ixua (helmugarako 6,5 km faltako direnean) mendateak gainditu beharko dituzte. Helmuga Toribio Etxebarria kalean egongo da eta, antolatzaileen kalkuluen arabera, azkarrenez 11:42 inguruan helduko dira bertara.



Deporreko pilotariak lehiara itzuliko dira asteburu honetan

E.B. Gaur, 18:15etik aurrera, sei partida izango dira ikusgai katedralean. Lehen neurketan, Arrieta eta Agote errendimenduko infantilak Errenteriako Eple 1 klubeko bikotearen aurka ariko dira. Amillategi eta Gil kadeteek Izagirre eta Estensoro izango dituzte aurkari. Jubeniletan, Del Rey Lacarrarekin neurtuko da, eta Segurolak Caminosen aurka jokatuko du. Senior mailan, Narvaizak Zabalaren aurka jokatuko du.

Etetik kanpo, Udaberri Txapelketan, Arriola eta Segurola errendimenduzko alebinak Zestoan ariko

dira, eta Atxa eta Uriarte Arrasaten Behar Zana 2 taldeko bikotearen aurka.

Bihar, Tolosako Beotibarren, Condek Altunaren aurka jokatuko du; Alegian, 10:30ean, Lizarralde eta Saez haur errendimendukoek kantxaratuko dira; eta Oiartzungo Madalensoron, Amuategi seniorra Aranburu etxekoaren aurka ariko da Gipuzkoako 4^terdiko txapelketako lehen jardunaldian.

Asteburu domekan itxiko da, Antzuolan, non Ibarra eibartarrak Etxanizen aurka jokatuko duen.

Bergara Pneumatikoak liderrak sendo jarraitzen du

E.B. Joan den asteburuan lehia bizia izan zen Unbe futbol zaletuaren 5. jardunaldian. Lehen postuan berdinduta zeuden Bergara Pneumatikoak eta Kalaka Buenos Aires taldea nor baino nor aritu ziren, eta lehengoa atera zen garaile, 0-4.

Horrela, Bergarak zortzi puntu ditu eta liderra da atzetik datozenei bi puntuko aldea ateraz. Izan ere, ligaxka amaitzeko hiru partiduren faltan (batzuek lau jokatu behar dituzte) sei punturekin daude Bar Marem, Kalaka Buenos Aires eta Xania Taberna.

Oraindik punturik ez duen taldea Baserri da. Ez du berdinketarik edo garaipenik lortu ez Ligan ez Kopan, baina oraindik ez du itxaropenik galdu.

SAILKAPENA

1. Bergara Pneumatikoak, 8 puntu
2. Bar Marem, 6 puntu
3. Kalaka Buenos Aires, 6 puntu
4. Xania Taberna, 6 puntu
5. Malape Taberna, 5 puntu
6. Garajes Garcia, 4 puntu
7. Limpiezas Rueda, 3 puntu
8. Adahi Etxegi, 2 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Kuadrillen arteko Futbol 7 Txapelketan izena emateko epea zabalik dago

E.B. Aurten Eibarko kuadrillen arteko Futbol 7 Txapelketaren 5. edizioa jokatuko da. Demaseko arrakasta izan du azken urteotan eta ehundaka lagun elkartu izan dira Unben, futbola aitzaki, lagunartean egun (eta gau) zoragarria pasatzeko.

Aurtengo edizioa ekainaren 13an jokatuko da eta dagoeneko zabalik

dago izena emateko epea, apirilaren 26ra arte. Antolatzaileek esan dutenez, txapelketan parte hartuko duten jokariak eibartarrak edo Eibarren bizi direnak izan behar dira, eta 18 urtetik gorakoak. Gainera, gogoratzen dute aurtengo ediziorako sailkatuta dauden taldeek ere izena eman behar dutela, "parte hartu nahi izanez gero".





Lehen Maila Nazionaleko Eibar Eskubaloiak hirugarren postua eskuetan du

E.B. Gizonezkoen 1. Maila Nazionalen jokatzeko duen Eibar Eskubaloiak iazko postu berean amaituko du aurtengo denboraldia, hirugarren postuan. Izan ere, asteburuan Beti Onak taldeari 30-23 irabazi ondoren, eibartarrek 42 puntu dituzte eta zazpi puntura dute aurretik Romo eta lau puntura atzetik Barakaldo.

Neurketa ez zen modurik onenean hasi eibartarrentzat. Talde nafarra intentsitate handiagoarekin sartu zen kantzara eta lehen minutuetan

aurea hartu zuen (1-3), Eibar ezustean harrapatuz. Hala ere, trantsizio azkarrekin eta erasoan gehiago asmatuta, armaginek markagailuari buelta ematea lortu zuten lehen zatian erdialdera iritsi aurretik. Hortik aurrera, nagusitasuna eibartarra izan zen argi eta garbi, eta 17-9 iritsi ziren atsedenaldira. Bigarren zatian, partida fase orekatuago batean sartu zen, baina Eibar Eskubaloiak beti izan zuen markagailuaren kontrola. Garaipena ez zen inoiz kolokan egon eta 30-23 amaitu zuten.

Realaren Kopako finala ikusteko pantaila erraldoia

E.B. Real Sociedad taldeak Kopako finala jokatu du bihar, 21:00etan, Madrilgo Atleticoaren aurka, Sevillan, eta, partidak sortu duen ikusmira kontuan hartuta, Untzaga plazan pantaila erraldoia jarriko dute neurketa zuzenean jarraitzeko. Horrela, eibartarrek Mikel Oyarzabal eta Jon Gorrotxategi herrikideak animatzeko aukera izango dute.



CD Urki-ren infantilak Deban irabazle

E.B. Aurrekoa asteburu zoragarria izan da CD Urki-ren emakumezkoen infantilen taldearentzat, Debako Aldamar Txapelketa irabazi zuten-eta. Talde eibartarrak Ondarroako Aurreraren aurka jokatu zuten lehen partidua eta 2-1 irabazi zion Aminak egindako golekin. Bigarrenean etxeko taldea izan zuen arerio, Amaiak Bat, eta partidua hutsean amaitu zen, baina penaltietan eibartarrak izan ziren nagusi 2-3 Amina, Vega eta Ane Garciaeren golei esker.

Bestalde, asteburuan jokatu zuen CD Urki-ren talde bakarra jubena izan zen. Lakuaren aurka jokatu eta 3-2 irabazi zion Kemenen (2) eta Carlosen golei esker.



Behobia-Donostiarako dortsalen zozketa martxan

E.B. Martitzenean zabaldu zuten Behobia-Donostia lasterketaren 61. edizioko dortsalen zozketarako erregristo-fasea. Apirilaren 22an itxiko da eta edizio honetarako 17.287 dorsal zozketatuko dira. "Prozesu honen helburua lasterketan parte hartu nahi duten atleta guztiei aukera berdinak eskaintzea da", antolatzaileen berbetan. Egun horietan erregristratzeko ordenak ez du zortean eragiten, erregristo guztiak baldintza berberetan sartuko baitira.



Urbat Urkotronik-en eskola-taldeak bigarren postua lortu du Arabako Kopan

E.B. Urbat Urkotronik waterpolo klubaren eskola-taldeak Lautadak antolatutako Alebinen Waterpoloko II. Arabako Kopan parte zuen hartu, eta bigarren postu bikaina lortu zuen. Gazteek beste urrats bat eman dute euren bilakaeran, gero eta maila hobean lehiatzeko gaitasuna erakutsiz. Finalak oso gutxigatik ihes egin baziren ere, etorkizunari begira ilusioa piztuta dago.

Gizonezkoen 2. Nazionallean jokatzeko duen Urbatek, bestalde,

5-5eko berdinketa eskuratu zuen Nou Godellaren aurkako neurketan. Ondoren, partida penaltietan erabaki zen, eta valentziarrak nagusitu ziren 9-8ko emaitzarekin. Gol gutxiko norgehiagoka izan zen, oso parekatua, giro beroan eta harmailak lepo beteta zirela.

Eibartarrek izaera handia, pazientzia eta talde-lan sendoa erakutsi zuten, nahiz eta azkenean hiru puntuetatik bakarrarekin itzuli.

Arguiz eta Bascaran podiumera igo ziren Araban

E.B. Joan den domekan, Arabako Gimnasia Federazioaren Txapelketa Nazionala jokatu zen eta, Ipurua klubeko ordezkarietako dagokienez, Nahia Arguiz lehena izan zen pilotarekin senior master kategorian eta Arrate Bascaran bigarren modalitate berean, baina maila absolutuan.

Nora Eizaguirre oinarritzeko kadedeak, bestalde, asteburu honetan izango du hitzordu garrantzitsua, Espainiako Txapelketan izango baita, Oviedon.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Huesca (etzi, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Deportivo B (bihar, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Ebro (bihar, 16:30)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Portugalete - EIBAR C (gaur, 1196:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Danok Bat (bihar, 12:00)

Jubenilen Liga Nazionala (gi)

EIBAR - Tolosa (bihar, 11:30)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

Danok Bat - URKI (bihar, 16:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Bergara Pn. - Adahi Etxegi (bihar, 09:00)
- Baserri - Xania Taberna (bihar, 10:30)
- Kalaka Bs. As. - Bar Marem (etzi, 09:00)
- Garajes G. - Malape Taberna (etzi, 10:30)
- Atsedena: Limpiezas Rueda

ESKUBALOIA

Zilarrezko Maila (em)

E. Basauri - ESKUBALOIA (bihar, 19:00)

1. Maila Nazionala (gi)

E. ESKUBALOIA - Anaitasuna (bihar, 19:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 1. Maila (em)

A. JUANTXO - AT. San Sebastian (bihar, 14:30)

WATERPOLOA

2. Nazionala (gi)

URBAT - Real Canoe (bihar, 19:45)

Euskal Liga (em)

Portugalete - URBAT (bihar, 15:40)

Euskal Liga (gi)

URBAT B - Urgara (gaur, 21:15)

PALA

Eibarko Pala Txapelketa (bihar 9:15etik)

AMAS-BARTOLO / ACEMEL-XABIER

GURRUTXAGA-CONDEIOSU-GUINEA

ARKAITZ-ANE / GISASOLA-SOLOGAISTUA

LETU-GAZTELU / BAROJA-BENGOETXEA

BILBAO-LOIDI / IZARRA-ARRIZABALAGA

Kirol albiste gehiago gure webgunean



“Orduan guztiok ginen iraultzaileak, baina barrenean burges txikiak eta matxistak ginen”

MIGUEL ARROITAJAUREGI • Idazlea




‘Perdedores y vencidos’ lanarekin arrakasta lortu ondoren, Miguel Arroitajauregi idazle eibartarrak ‘Transiciones’ liburua aurkeztu zuen atzo, eguena, Portaleko areto nagusian. Lehenengoan bezala, bigarren lan honetan historiak badu bere pisua, baina dokumentazio eta egokitzapen historikoa albo batera laga gabe, fikziozko pertsonaien bizitzan eta trantsizioetan sakondu du gehiago.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**


Liburuaren izenburuak dioen bezala, trantsizioak dira nobelaren ardatza: historikoak eta pertsonalak. Eleberria Ekuatore Gineako eta Espainiako trantsizio politikoetan kokatzen da eta, era berean, pertsonaiek bizi dituzten trantsizioak azaltzen dira, haurtzarotik nerabegarora eta gaztarora nola igarotzen diren ikusiz, horrek dakarren guztiarekin: belaunaldien arteko borroka, ideologikoki heltzea, konpromiso politikoak, sexu-ernatzea, eta abar.

Liburua ‘Transiciones’ deitzen da eta trantsizioak dira ardatz, baina zein zentzutan?

Bi ikuspegi ezberdinetatik lantzen dut kontzeptu hori. Trantsizioa berba entzuten dugunean trantsizio politikoa etorri ohi zaigu burura, Espainiako adibidez, frankismotik demokrazia honetara eman zena. Baina badaude trantsizio pertsonalak ere, gudan ematen diren aldaketak. Liburuan hiru pertsonaia agertzen dira eta denak jaio dira 1950-1952 urteen inguruan. Ni pixka bat gazteagoa naiz, baina hori guztia ezagutu nuen.



Franco hil zenean 19 urte nituen, adibidez. Pertsonaia nahita jarri ditut ni baino zaharragoak, sasoi horietako gertakizunetan agente pasiboa izan nintzelako eta eurak antifrankismoaren kontu horietan gehiago sartuta zeudela irudikatu nahi nuelako. Alde batetik, gertatutakoa gogoratu nahi izan dut. Gauza ezagunak izan arren, trama lotzeko informazioa bilatu behar izan dut datak ondo zehazteko, eta abar. Eta bestetik, beste trantsizio bat aipatu nahi nuen, Ekuatore Gineakoa. 1969. urtean



Bere bigarren eleberria argitaratu du Miguel Arroitajauregik. EKHI BELAR

lortu zuten independentzia eta gertakizun horrekin hasten dut liburua.

Nola egitaratu duzu liburua?

Lehenengo eleberriarekin alderatuz, honek egitura sinpleagoa du. Besteak denboran jauziak egiten zituen, hiru sasoi ezberdin agertzen ziren... Hemen ez, oso lineala da. Flashback batekin hasten da, azalduz Espainia nola irten zen Gineatik. Frankismoak isildu egin zuen, baina Espainiarentzat oso gogorra izan zen. Hori hartzen dut aitzakia moduan hiru pertsonaietatik bi aurkezteko, euren harremana nola hasi zen azalduz. Hortik Madrilerara pasatzen gara eta hortik aurrerakoa bertan gertatzen da. Batzuk galdetzen zidaten: “Eta zergatik ez Euskal Herrian?”. Ba sasoi hori ez nuelako Eibarren bizi. 16-17 urterekin joan nintzen hemendik eta 23rekin bueltatu nintzen. Bost urte egin nituen Salamancan ikasten eta beste bat soldadutzan. Hemengoa ezagutzen nuen, baina ez nuen bizi izan. Gehiago ezagutzen nuen Salamancan, Valladoliden edo Madrilen gertatutakoa, toki hauetan ikasten genuen euskaldunok harremana genuelako eta batetik bestera ibiltzen ginelako.

Beraz, liburuak badu autobiografikotik?

Zerbait bai. Pasarte batzuetan inguruko jendeak edo nik ezagututako edo bizitako gauzak azaltzen dira. Beraz, bi edo hiru gauzatan bada autobiografikoa, agian gehiagotan. Badakizu, azkenean nahigabe... Bitxikeria moduan, liburua idazten amaitu nuenean 6-7 laguni eman nien euren iritzia jasotzeko eta batek esan zidan, “Miguel, hori zu zara”, eta nik, “ez da izango!”.

Nolakoak dira pertsonaiak?

Hiru gazte dira, neska bi eta mutil bat. Mutila nik ezagutu nituen bi edo hiru lagunuen sintesia da. Familia oneko jendea, baina guztiz iraultzailea. Sasoi horretan guztiok ginen iraultzaileak, baina gure barrenean burges txikiak eta matxistak ginen, besteak beste, eta hori islatu nahi izan dut. Pertsonaia hori komunista da, abokatu, beti istiluetan dabil, baina bere aita Justizia Idazkariordea da. Beraz, babestu egiten du, inoiz ez da kartzelan egon, pisua amak ordaindu dio... Iraultza egitea errazagoa da horrela. Bestalde, ez nuke esango matxista denik, baina bai da guk jaso dugun hezkuntzaren erakusle.

Nolakoak dira beste biak?

Neska biek Ginean ezagutzen dute elkar, gurasoak han bizi direlako. Baten aita ingeniari agronomoa da,

eta bestearena Guardia Zibila. Azken hau, Olga, oso iraultzailea da, baina ez alde politikotik bakarrik, arlo guztietatik baizik. Bestea, Maria Pilar, neska mimatua da, gurasoek esaten dutena beti iruditzen zaio ondo... eta Olgak, ezagutzen duenean, ikusten du asko eragin dezakeela beragan. Hor ere bilakaera bat ikusten dugu. Baten bilakaera naturala da eta bestearena baldintzatu. Gineatik Madrilerara joan arren, elkarrekin jarraitzen dute eta han mutila ezagutzen dute. Mutilak eta neska batek amodio-kontu bat dute, eta era berean bi nesken arteko harremana nolakoa den beti dago airean. **Orduan, liburua idazteko lanketa bikoitza egin duzu. Batetik, historiaren arloa zaintzeko, dokumentazio-lana adibidez; eta bestetik, pertsonaien eta fikziozko istorioaren lanketa, ertz asko baititu.**


Egia esan, dokumentazioaren aldetik ez dut lan handirik egin behar izan. Gineako pasarteak kontatzeko bai, eskolan Ginearen inguruan zerbait ikasi arren, ez nuelako zehazki ezagutzen zer gertatu zen bertan. Beste guztia kontatzeko, dokumentazio-lana egin baino, datak ondo gogoratzea eta zehaztea izan da lana.

Agian dokumentazio lana ez, baina bai izan da sasoi horiek gogoratzeko ariketa?

Zentzu horretan bai izan da introspektzio-lana. Salamancara ezer jakin gabe joan nintzen eta sasoi horretan hara joatea ez zen gaur egun bezala. Irailean joaten ginen eta Gabonetan bueltatzen ginen. Komunikatzeko ez zegoen aukera askorik, batzuetan telefonoz hitz egiten genuen familiarekin, baina lagunekin ia inoiz. Gutunak idazten genituen, baina ez zen praktikoa. Salamancan beste mundu bat ezagutu nuen. Eibarren astero joaten nintzen elizara, baina hara joan eta hamabost egun geroago konturatu nintzen ez nintzela elizara joan. Ze gertatzen da hor? Alde batetik, hemen, ardiek bezala, besteek egiten zutena egiten nuen; eta bestetik, han askatasuna izan nuen, mota askotako jendea ezagutu nuen...

Zergatik erabaki duzu liburua sasoi horretan kokatzea?

Esperientzia pertsonala barruan nuelako, baina esperientzia pertsonalak kontatzea gogorra izaten da, eta ispilu bat jarri eta beste batzuek kontatzea izaten da onena. Garbi nuen sasoi horri buruz hitz egin nahi nuela. Beste liburua amaitu nuenean ez nuen beste nobelarik egiteko asmorik, baina dena ondo irten zen eta ilusio handiarekin pasa nituen bi urte horiek. Beraz, zergatik ez bigarren bat idatzi? Lehenengo ideia beste nobelan




agertzen zen pertsonaia bat ardatz hartzea zen, baina 1934an jaiotakoa zen, zaharregia nire esperientzia islatzeko. Beraz, zerotik hasi nintzen.

Beste liburuarekin alderatuz, asko aldatu da idazketa-prozesua?

Bai, guztiz. Lehengo nobelarekin, urte asko neramantzan zerbait idazteko gogoarekin. Kasualitatez, zerbait lotu eta hortik jo nuen. Aldez aurretik lan handia egina nuen, informazio pila bat neukan, baina kasu honean ezberdina izan da. Informazioa ez da hain sakona. Gineakoa dozena bat orrialdetan sartzen da eta beste zatiaren alde historikoa lantzeko ez dut ikerketa-lan handia egin behar izan. Bestalde, liburu berriarekin bai izan ditut krisiak eta bi-hiru hilabetetan ezer idatzi gabe egon naiz.

Eta nola askatu duzu korapiloa?

Ez dakizu zelan, baina momentu batean zerbait etortzen zaizu eta hortik jarraitzen duzu. Batzuk diote musek lanean harrapatu behar zaituztela, baina nire kasuan ez da horrela izan. Nire bizitzarekin jarraitzen nuen eta bat-batean ideia bat etortzen zitzaidan, probatzen nuen, balio zuela ikusi eta aurrera. Gainera, prozesuaren erdian etxe aldaketa egin dugu eta hor ez zegoen idazterik (barreak).



- Maiatzak 12, asteartea
- SD Eibar-eko prentsa aretoan

EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA ETA TRANSMISIOA

MINTEGIA

IZEN-EMATEA ZABALIK



- 08:45** Materiala jaso.
- 08:55** Ongietorria eta agurra.
- 09:15** **"Norantz doa euskara?"**.
Juanjo Allur eta Unai Oiartzun (SIADeco); eta Miren Segurola (UEMA).
- 10:05** **"Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian, oraina eta etorkizuna"**.
Agurne Gaubeka (Behatokia).
- 10:55** **"Bilbon euskaraz hazi. Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-bizipenak"**.
Olatz Altuna (Soziolinguistiko Klusterreko ikerlaria) eta Jaime Altuna (EHUko irakasle eta ikerlaria).
- 11:45** ATSEDENALDIA (ARGAZKIA ETA GOSARIA).
- 12:35** **MAHAINGURUA: Euskarazko eduki sortzaileak**.
Ana Goitia eta Alex Etxegibel.
Moderatzailea: Irati Alvarez (...eta kitto!).
- 13:25** Agurra.

eta kitto!
euskara elkarteak



BARIXAKUAK JOLASIAN, BUELTAN DA!

Umeentzat
jolasak,
doan



APIRILAK 17:

Txaltxa Zelain

APIRILAK 24:

Torrekuako
parkean

MAIATZAK 8:

Urkizuko parkean

17:00-18:00

BERBETAN

eta kitto!
euskara elkarteak

Ameli • Ipuin-kontalaria

“Oso gazte maitemiendu nintzen kontalaritzarekin eta, kontalari gisa ere, hala jarraitzen dut”

Apirilaren 28an izango da Ameli ipuin-kontalaria Eibarren, Portaleko kultur etxean, helduentzako ipuin kontaketa saio berezi batekin. Amaia Elizagoien "Ameli"ri (Oronoz, 1994) ipuinak entzutea bezain beste gustatzen zaio ipuinak kontatzea, eta horretan dabil 2015etik. Bakarleri bezala eta musikariekin batera aritzen da narratzaile lanetan. Bertsolaria eta idazlea ere bada.

Testua **ANA AIZPURUA RUBIO**

Zer aurkituko du publikoak Eibarko emanaldian?

Helduentzako ipuin-kontaketa bat izango da. Aurreiritziengatik askotan kostatu egiten zaigu pausoa ematea, baina jendea animatuko nuke esperientzia hau bizitzera: ipuinak umeekin lotzen ditugu, baina kontalaritzak tradizio handia izan du helduen artean ere. Garai batean, helduak elkartu eta istorioak partekatzen zituzten, eta nik uste dut hori berreskuratzea oso ederra dela. Saioan, publikoak bidaia kolektibo bat egingo du irudimenaren bidez. Aldi berean, bakoitzak iruditegiak sortzeko aukera izango du. Esperientzia kolektiboa da, baina oso pertsonala ere bai.

Zer motatako emanaldia izango da?

Baztanera bidaia egingo dugu. Bakarrizketa kutsua dauka, baina ez da ohiko bakarrizketa bat: umorea badago, baina ez da erritmo azkar horretan oinarritzen. Istorioak eramaten du erritmoa, eta tarteak ematen da sakontzeko. Gainera, musikak laguntzen du: biolina, pianoa eta gitarra izango dira oholtza gainean. Beraz, kantua eta kontua uztartuko dira. Azkenean, herri txiki bateko unibertsora bidaiatuko dugu. Oso gazte nintzenean taberna batean lan egin nuen, eta esperientzia horretatik sortutako pertsonaia eta bizipenak agertzen dira.

Zer sentsaziorekin ateratzen da publikoak?

Ondo pasatzen du eta, horrez gain, askotan emozioz beterik ateratzen da jendea. Ipuinek badute gaitasun berezi bat: entzuten ditugunean, gure barruko istorioak



“Ipuinak umeekin lotzen ditugu, baina kontalaritzak tradizio handia izan du helduen artean ere”

ere pizten dituzte. Gaur egun irudiek indar handia dute, baina ipuinek aukera ematen digute gure oroitzapenekin konektatzeko. Horregatik, askotan saioaren ondoren jendeak bere istorioak partekatzeko gogoia izaten du. Gertatu izan zaigu, adibidez, emanaldi baten ondoren jendea elkar besarkatzen hastea, bakoitzak bizi izan duenarekin konektatuta. Momentu horiek oso bereziak dira niretzat.

Badirudi kontalaritzak lotura handia duela sustraiekin...

Bai, guztiz. Kontalaritza herriarekin, historiaren transmisioarekin eta gure sustraiekin lotuta dago. Gaur egun, irudien mundu honetan, hitzari eta imajinazioari espazio bat ematea oso garrantzitsua dela uste dut.

Oso gazte hasi zinen kontalaritzan...

Bai, bertsolaritza heldu nintzen hona eta oso gazte hasi nintzen. Entzule gisa maitemiendu nintzen lehenengo kontalaritzarekin. Gaur egun, kontalari gisa ere hala sentitzen naiz, baina oraindik ere plazer handia da beste kontalari batzuk entzutea.



Apirilaren 29an ospatuko da Dantzaren Nazioarteko Eguna

S.H. Apirilaren 29an Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Udalak eta Eibarko akademia eta dantza eskolek jardunaldi berezia prestatu dute apirilaren 24rako, barixakurako. Dantza talde ezberdinek erakustaldiak eskainiko dituzte herriko kaleetan, 17:30etik aurrera. Ekimenean parte hartuko duten taldeak Ballet Eibarres, Kaxa, Udal Dantza Eskola, Kezka Dantza Taldea, Academia Eva, Untzaga Gizarte Zentroa, KOA, Pagatxa eta Beheko Tokia dira. Jaia agurtzeko, Gauargi taldearekin erromeria egingo da.



Eric Steckel blues abeslari eta gitarra-jolearen kontzertua

S.H. Coliseoko Musika Klubaren eskutik, domekan (apirilak 19) Eric Steckel blues abeslari, gitarrista, konpositore eta ekoizle estatubatuarrak kontzertua emango du, 19:00etan. Orain arte, Steckelek 12 disko kaleratu ditu, eta mundu osoan zehar aritu da Steve Vai, Gregg Allman, Johnny Winter, Ray Charles eta beste musikari ezagun askorekin. Blues-rock oso erritmikoa da berea, eta Clapton, Gary Moore, Rory Gallagher, Hendrix eta Stevie Ray Vaughaneren eragin argiarekin. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



‘Korrikaren 12. eguna’ egingo da Eibarko AEK euskaltegian

S.H. AEKren euskaltegietan 'Korrikaren 12. eguna' egitasmoa antolatu dute. Horrela, apirilaren 22an, eguaztena, Eibarko AEK euskaltegian eskola bat doan emango dute: “Ordubeteko euskara klasea izango da, A1 mailakoa, eta ez da ezer ordaindu behar, izena ematearekin nahikoa da”. Saioa goizez (10:00etatik 11:00etara) edo arratsaldez (18:00etatik 19:00etara) egin ahalko da. Izena emateko zein informazioa eskatzeko, eibar@aek.eus helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 943 201 379 / 688 746 634 telefonoetara deitu.



Jardueraz betetako egunak Pagatxako emakumeentzat

S.H. Pagatxa taldeko emakumeen agenda bete-beteta dator. Gaurko (barixakua, hilak 17) zine-forum saioa antolatu dute, 18:30ean Portalean. *Figuras ocultas* filma ikusi eta, ondoren, solasaldia egingo dute. Eta martitzenean (apirilak 21) bideo-forum saioa egingo dute, 17:00etan Andretxean. Carmen Fernandez-Molinari buruzko dokumentala ikusi eta solasaldia egingo dute. Batean zein bestean sarrera librea eta doan izango da. Horrez gain, apirilaren 13an Bilboko Arte Ederren Museora joan ziren, Denisse Scott Brownen *Hiria, kalea, etxea* aldi baterako erakusketaren bisita gidatua egitera (argazkian).

ERRAZA

	4	2	1	9		7	3
1	9	8	7			5	4
7	6			5		1	8
			5		2	9	1
9			6	3	7		2
4	2					3	
	1						5
	7	6				9	1
	5			1	9	7	

SUDOKUA


9	1	8	7	6	5	4	3	2	1
8	7	6	5	4	3	2	1	9	8
7	6	5	4	3	2	1	9	8	7
6	5	4	3	2	1	9	8	7	6
5	4	3	2	1	9	8	7	6	5
4	3	2	1	9	8	7	6	5	4
3	2	1	9	8	7	6	5	4	3
2	1	9	8	7	6	5	4	3	2
1	9	8	7	6	5	4	3	2	1

9	8	7	6	5	4	3	2	1
8	7	6	5	4	3	2	1	9
7	6	5	4	3	2	1	9	8
6	5	4	3	2	1	9	8	7
5	4	3	2	1	9	8	7	6
4	3	2	1	9	8	7	6	5
3	2	1	9	8	7	6	5	4
2	1	9	8	7	6	5	4	3
1	9	8	7	6	5	4	3	2

ZAILA

	6				4		
		9					
	6						
	5				8	3	
		5					6
5	1	7	9				

LABIRINTOA



Apirilak 17 - Apirilak 23

BARIXAKUA 17

BARIXAKUAK JOLASIAN

18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzat jolasak. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Txaltxa Zelai.

ZINE-FORUMA

18:30 Pagatxa elkartearen zine-forum feminista saioa: "Figuras ocultas" (Theodore Melfi) filmaren emanaldia eta solasaldia. Sarrera librea eta doan. Portalea (areto nagusia).

ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

22:00 "Ahotsa(k)" ikuskizuna. Zuzendaritza eta dramaturgia: Irene Hernando. Koreografia: Kaxa, Kezka eta Os Galaicos. Musika: Quico Puges. Doan. Untzaga.

ZAPATUA 18

ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

10:30 eta **17:00** Altxorraren bila: "Non dago II. Errepublikaren Aldarrikapen Akta?".

DOMEKA 19

TXIRRINDULARITZA

10:00 Eibarko Hiria Sari Nagusia emakumezkoen lasterketa, Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatuta. Irteera eta helmuga: Toribio Etxebarria.



ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

10:00 "II. Errepublikaren eragina" bisita gidatua, Jesus Gutierrez historialariaren eskutik. Gaztelaniaz. **12:15** Bisita berbera, baina euskaraz. Untzaga.

MUSIKA KLUBA

19:00 Eric Steckel blues abeslari, gitarra, konpositore eta ekoizlearen kontzertua. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ASTELEHENA 20

PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA

17:30 "Sorgina, banaiz!" dokumentala eta solasaldia, Asisko Urmeneta zuzendariarekin. Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta. Markeskua.

BISITA GIDATUA

18:30 "Indusen ibilbideak: Himalaiatik Karatzira. Pakistan, begirada sozial bat", Igone Mariezkurrenaren argazki erakusketara bisita, euskaraz. Doan. Andretxea.

MARTITZENA 21

BIDEO-FORUMA

17:00 "Emakumeen istorioak", Pagatxaren bideo-forum feministaren saioa: Carmen Fernandez Molina. Sarrera librea eta doan. Andretxea.

HERRITU

18:30/19:30 Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

19:00 Hitzaldia: "II. Errepublikaren eragina Euskal Herriko herrietan", Patxi Juarristi Larrinagaren eskutik. Euskaraz. Doan. Portalea.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubaren saioa Katixa Agirrerekin, "Berriz zentauro" liburua aztertzeko. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal. Eibarko Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Portalea.

EGUAZTENA 22

KORRIKAREN 12. EGUNA

10:00-11:00 / 18:00-19:00 Euskara eskola bat doan. Eibarko AEK euskaltegia.



BISITA GIDATUA

18:30 "Indusen ibilbideak: Himalaiatik Karatzira. Pakistan, begirada sozial bat", Igone Mariezkurrenaren argazki erakusketara bisita, gaztelaniaz. Doan. Andretxea.

EUSKAL JAIA

19:00/21:00 Larrain-dantza errepasoa. 5 euro (Arrate Kultur Elkarteak bazkideek dohainik). Arrateko Andra Mari ikastetxea.



EGUENA 23

HITZALDIA

10:00-12:00 ¿Quien sostuvo el franquismo en el País Vasco? hitzaldia, A. Riveraren eskutik. Antolatzailea: Ikasten. Sarrera librea. Portalea.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emai-leentzat. Untzaga jubilatuta etxea

BISITA GIDATUA

18:30 Eibarko Artisten Elkartearen erakusketara bisita, gaztelaniaz. Doan. Portalea (erakusketa aretoa).

ERAKUSKETAK

Apirilaren 17tik maiatzaren 3ra

"Sormenaren Hazia", Eibar BHIko ikaslearen erakusketa. Portalea.

Apirilaren 20tik maiatzaren 15era

"Indusen ibilbideak: Himalaiatik Karatzira. Pakistan, begirada sozial bat", Igone Mariezkurrenaren argazkiak. Andretxea.

Apirilaren 28ra arte

Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa. Portalea.

Maiatzaren 17ra arte

"El Trust Eibarres S.L." erakusketa, enpresaren me-deurrena ospatzeko. Armagintzaren Museoa.

ZINEA COLISEO



“Noche de bodas 2”
THRILLER. IZUA. KOMEDIA

2026 / AEB / 108'
Zuzendaria: Matt Bettinelli-Olpin, Tyler Gillett
Aktoreak: Samara Weaving, Kathryn Newton, Kevin Durand
Komedia beltza. Familia

1 ARETOA

- **18an**: 17:00, 19:45
- **19an**: 17:00

ANTZOKIA

- **18an**: 22:30
- **20an**: 19:30



“Calle Málaga”
DRAMA.

2025 / Maroko / 116'
Zuzendaria: Maryam Touzani
Aktoreak: Carmen Maura, Marta Etura, Ahmed Boulane
Zahartzaroa/Heldutasuna.
Amatasuna

1 ARETOA

- **18an**: 22:30
- **19an**: 20:00
- **20an**: 19:30




“Te van a matar”
IZUA. AKZIOA. KOMEDIA.

2026 / AEB / 94'
Zuzendaria: Kirill Sokolov
Aktoreak: Zazie Beetz, Patricia Arquette, Myha'la, Paterson Joseph
Zahartzaroa/Heldutasuna.

2 ARETOA

- **18an**: 17:00, 19:45, 22:30
- **19an**: 20:00
- **20an**: 19:30



“Super Mario Galaxy”
ANIMAZIOA. FANTASIA.
ABENTURAK

2026 / AEB / 98'
Zuzendaria: Aaron Horvath, Michael Jelenic
Aktoreak: Chris Pratt, Anya Taylor-Joy, Charlie Day, Jack Black

ANTZOKIA

- **18an**: 17:00, 19:45

2 ARETOA

- **19an**: 17:00



Jose Domingo Etxaide
Zenarruzabeitia

2026/04/02

“Beti egongo
zara gure
bihotzetan”

- ETXEKOAK -



Carmen Arano
Aranberri

1. URTEURRENA
2025/04/17

“Zure irribarria eta
maittasuna beti dagoz
gurekin”

- ETXEKUAK -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **SANTIAGO** zure 105 urtebetzean famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak **ELENE!** Atzo, apirilak 16, 7 urte bete zenuen. Musu haundi bat etxeko guztien partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak **LIZAR!** Aranberri Zubizarreta, martitzenian 13 urte bete zenuen eta. Segi holako jator, mutil haundi! Patxo pilla bat etxeko danon partez.



Zorionak **OIHENART!** Zapatu honetan hamabost urte betetzen dozuz. Artista izateari eutsi! Patxo erraldoia ama, aita eta Aioraren partez.



Zorionak **ELIXE!** Martitzenian 5 urte egingo dozuz! Jarraitu beti bezain sorgintxo izaten. Musu haundi bat Pello eta Txominen partez.



Zorionak **IRATI!** Apirilaren 6xan 6 urte bete zenuen eta. Asko maite zaittugu!




Zorionak **JUNE!** Hilaren 15ian hiru urte bete dituzu eta. Zoragarria zara!



Zorionak **OSKAR!** astelehenean (apirilak 20) urtiak beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixa eta lagunen partez, ondo ospatu.



Zorionak **ANGEL** eta **MARITXU!** Apirilaren 14an elkarrekin 70 urte bete dozuez. Bizitza oso bat! Patxo erraldoia famelixa osuaren partez!




Juan Anchia Empanza

6. URTEURRENA
2020/04/14

“Beti eramango zaitugu bihotzean”

- ETXEKOAK -





Arrate Aranberri Ulibarri

2026/04/08

“Ez ditugu inoiz ahaztuko zure alaitasuna eta bizitzeko gogoia”

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Emakumeak pisu edo logela bat alokatuko luke. 742099074.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Urkizu Pasea- lekuko 9 zenbakian. 25 m². 659584892.
- Trasteroa salgai. 5 m². Arratebiden. 666769414.

3.2. Errentan

- Egiuren-tarren garaje itxia alokagai. 646964712.

3.3. Konpartitzeko

- Laster Eibarren zabalduko den tailer/coworking bat partekatzeo kide bila dabil artista plastikoa. Mota guztietako profilak ongi etorriak dira. 658872397.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Orduka, asteburuetan... 643860541.
- Ingeniari mekanikoa eskaintzen da auto konponketa ezberdinak egiteko; larrialdikoak, konponketa txikiak eta abar. 641838914.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Edozein ordu eta egunetan. 672965658.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera. 641834341.
- Emakumea eskaintzen da ospitalean dauden nagusiak zaintzeko. Orduka. 641837075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna moduan, asteburuetan, orduka... Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632624579.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita etxeko lanetarako ere. 602715786.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, 10:00etatik aurrera. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 602800266.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eskarmentu askorekin, ziurtagiri soziosanitario eta zainketa aringarrietako tituluarekin. Edozein leku, ordu

eta egunetan lan egiteko prest. 640265606.

- Langilea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Ordu-tegi malgua (gauez, asteburuetan...). Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 643579693.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxeko lanetarako. 631793773.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko ospitalean, asteburuetan, orduka edo externa. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da umeak edota nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 662625534.
- Mutil gaztea eskaintzen da tabernari modulan lan egiteko eta baita nagusien zainketa eta garbiketa lanak egiteko ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka edota interna bezala, baita garbiketa lanetarako ere. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da ostalaritzan, garbiketa lanetan edota nagusiak zaintzen lan egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641322473.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. 642450647.

4.2. Langile bila

- Ermuko hortz klinika batek higienista/auxiliarra behar du, lanaldi erdirako. Bidali zure CV hortzklina.4@gmail.com
- Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta laguntzeko. Beharrezkoa paperak eta titulua edukitzea. Interna beza-

la edo asteburuak. Esperientzia baloratuko da. 627307168.

- Gastesi hortz-klinikan odontologo bila gabilza. Interesatuak, bidali kurrikuluma mesede: clinica@gastesidental.es.
- Estetizista eta fisioterapeuta behar dira Eibarko ileapain-degi batean. Lan giro ona. 943208125.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Koltxoi bat salgai, 135x190koa, 75 eurotan. iraugi55@gmail.com

6.2. Eman

- Ohe artikulatua salgai prezio onean. 618022434.

 **Neinor** HOMES

EIBAR

ARRATE HOMES ERREALITATEA DA



**2 eta 3 logelako
etxebizitzak**


**Bisitatu pisu pilotua
eta estreinatu etxebizitza
hilabete honetan bertan**

Gourmet aretoa | Gimnasioa


**APARKALEKUAK
ESKURAGARRI**

900 11 00 22 · neinorhomes.com

EIBARKO MUSIKA ESKOLA

 musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus
943702725

INSTAGRAM | FACEBOOK | YOUTUBE

 @eibarkomusikaeskola





Sonrisalud Eibar Hartz Klinikak **Ortodontzia Ikusezinari buruzko Jardunaldia** antolatatu du: 3D teknologia, azken emaitzaren simulazioa eta irribarrea hobetu nahi dutenentzat baldintza paregabeak

Gero eta jende gehiagok hobetu nahi du bere irribarrea... baina une batek dena aldatzen du: hasi aurretik planifikazioa eta emaitzak ikustea.

Horixe da, hain zuzen ere, Sonrisalud-ek apirilaren 25ean Eibarren egingo den **Ortodontzia Ikusezinaren Jardunaldiarekin** proposatzen duena. Jardunaldiak interes handia sortu du beste hiri batzuetan, ikuspegi berritzaileagatik eta baldintza eskusiboengatik.

Egun horretan, irribarrea lerrokatu nahi duen edonork **ortodontziari buruzko azterketa osoa egin ahal izango du punta-puntako 3D eskanerren bidez**. Teknologia horri esker, ahoa zehaztasun osoz azter daiteke, molde deserosorik gabe eta minutu gutxitan.

Baina benetan bereizten gaituena zera da: **irribarrearen aurreko eta ondorengo simulazio birtual bat** egiteko aukera. Horrela, pazienteak, tratamendua nola geratuko den ikusiko du, baita hasi aurretik ere. Esperientzia horrek segurtasuna eta konfiantza ematen du, eta erabakia hartzeko askoz informazio gehiago.

ORTODONTZIA IKUSEZINAK GORALDIA BIZI DU

Ortodontzia ikusezina odontologian gehien eskatzen den aukereta bat bihurtu da, bereziki helduen artean.

Bracket tradizionalak ez bezala, sistema horrek **lerrokagailu gardeenak eta erauzgarriak** erabiltzen ditu. Hortzetako posizioa pixkanaka zuzentzen dute, pazientearen estetikari eragin gabe.

Abantaila nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- **Diskrezioa**, ikusezina baita
- **Erosotasun** handiagoa, urradurarik eta larrialdirik gabe
- **Higiene** hobea, jateko eta hortzak garbitzeko kendu baitaiteke
- Eta plangintza erabat **digitala** eta **aurrez ikusteko** modukoa.

Horren guztiaren ondorioz, gero eta gehiago dira tratamendu mota hau aukeratzen dutenak.



BALDINTZA BEREZIAK... EGUN BATEAN BAKARRIK

Jardunaldia teknologiagatik ez ezik, baldintza eskusiboengatik ere nabarmentzen da.

Egun horretan, Sonrisalud-ek **prezio paregabea eskainiko du urte barruko ortodontzia ikusezineko tratamenduetan**, mundu mailako marka liderrarekin lan eginez, eta, beraz, hitzordu hori aukera paregabea da.

Gainera, pizgarri gehigarri gisa, **jardunaldian zehar tratamendua hasten duten paziente guztiek tableta bat jasoko dute** operari, kanpainaren izaera berezia indartzeko.



PLAZA OSO MUGATUAK

Sonrisalud-ek ohartarazi du hitzordu kopurua txikia dela, azterketa bakoitzak denbora eta langile espezializatuak behar baititu.

Izan ere, beste hiri batzuetan egindako edizioetan plazak azkar bete ziren, itxaron zerrendak sortuz.

Hori dela eta, hitzordua alde z aurretik erreserbatzea gomendatzen diete interesdunei, sonrisalud.es webgunearen bidez edo klinikarekin zuzenean harremanetan jarriz.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Ortodontzia Ikusezinari buruzko Jardunaldia:
Apirilak 25
Sonrisalud Eibar Klinika. Tel. 943 23 14 14
Helbidea: **Toribio Etxebarria 23**
Izena emateko: www.sonrisalud.es